

BAZKIDE GARRANTZITSUENAK

Gure bazkide garrantzitsuena itsasoko plastikoa jasotzeaz arduratzen den taldea da, hauek plastikoa jaso ezean, ezingo genuke arropa ekoitzi. Halaber, plastikoa enpresara garraiatzen duen bitartekaria ere oso garrantzitsua da. Horrez gain, banatzailea ere beharrezkoa litzaiguke gure enpresan. Banaketa kanpo-kanal bidez egingo dugu, hau da, banaketaren atala ez da enpresaren jabetzakoa izango. Gure kasuan, aliantza handienak, hornitzaile garrantzitsuak edo banatzaileak izango lirateke.

Amaitzeko, marka ospetsu eta internazional batekin kolaborazioak egitea da gure helburua. Hortaz, marka horren irudia hobetuko litzake, eta gure enpresa jendearen belarrietara iritsiko litzateke, beraz, bi enpresek onurak edukiko genituzke.